

# Medikuak Euskal Literaturan

Piarres Charriton

Erakundea  
Korreoa@korreoa

## Abstract

In this essay, the author lists and introduces 14 physicians who have made themselves a name in Basque language and literature. The authors are divided in two categories. One group is composed by physicians that more or less have contributed to Basque literature itself. The second group, much more reduced, is made of physicians that have made technical contributions, either in the domain of linguistics (Piarres Broussain) or in the divulgation of science (Maurice Souberbielle, Martin Minvielle). A remarkable case is Jean Etxepare's, whose extended and valuable production touches both domains.

## Laburpena

Idazlan honetan XVII-XX mendetako hamalau mediku zerrendatu eta aurkeztu dira, euskal letren munduan norbait izan direnak. Era bitakoak dira oro har. Batetik, gehiengoa osotzen dute mediku izanik euskal literaturara batez ere ekarpen literarioa egin dutenek, handiagoa edo txikiagoa. Bigarrenik, askoz gutxiago dira ekarpen teknikoa egin dutenak, dela hizkuntzaren alorrean (Piarres Broussain), dela zientzia-dibulgazioarenean (Maurice Souberbielle, Martin Minvielle). Azpimarragarria da Jean Etxepareren kasua, obra zabala eta balio handikoa baitu ikuspegi bietatik.

**Keywords:** Medicine Doctor, Basque Literature

**Gako hitzak:** Medikua, Euskal Literatura

"Damurik etzekutsala anaia medikuak

"Hark begiak hetsiz gero egun tutzun bertsuak

"Ezen gehiago zure preza liro artea

"Egin ohi zuen baino bizi zela berea.

"Harenak gidatzen zuen gorputza indarrera,

"Bainan zureak arima hedoiaren gainera"

(P. Gillentena Itsasuko erretorak, bere adiskide Joanes Etxeberri, doktor teologo, "Manual Debozinezkoa"-ren egileari. 1626 an.)

## 0. Sarrera

Apezek egundainotik, eta hemen orain zehaztuko ez ditugun mila arrazoinengatik leku izigarria hartu dute euskal literaturan. Gauza jakina da. Berehala gogoratzen zaizkigu Bernat Etxepare, Leizarraga, Axular, Mogel eta beste zenbat izen. Gauzak aldatu dira. ez da dudarik. Bizkitartean gure aintzineko literaturari hurbiletik behatzen badiogu, apezek besterik ere aurkituko dugu: Oihenart, Egiategi, Elizanburu edo Duvoisin bezalako legegizon, maisu, kapitain eta oroz gainetik, asko mediku.

Euskal literaturaren historiako medikuei buruz ikerlantto hau egitea gogoratu zaigu. Hogeit hamar bat badira, gehienak Iparraldekoak, zuzen denez, bi mende lehenago alde horretan hasi baitzen euskara

"inprimitzen", Bernat Etxeparekoak 1545 ean idatzi zuen bezala. Baina azken mendeetan Hegoaldekorik ez da faltako. Hona hemen zein diren guk bildu ditugunak, batere sailkatu gabe beren idazkera maila edo neurriarren arabera, mendeetan zehar agertzen diren arau soil-soilik.

## 1. Joanes Etxeberri Ziburuko Teologoaren anaia medikua

Joanes Etxeberri Ziburuko teologoak bere "Manual Debozinezkoa" argitaratu zuelarik 1627 an, Axular, Hegi, Hirigoiti eta beste adiskide euskalzalek bezala Gillentena Itsasuko erretorak ere zorianak eskaini zizkion euskal idazle handiari eta eskaintza horretan aipatzen zion bere anaia mediku zena, orduan hil-berria, eta bertsuzale handia omen zena. Anaia horrek berak idatzi ote zuen bertsurik, Joanes teologoak bezala, zuzen ez dakigu. Dena dela hau dukegu gure literaturaren historian datorren lehen mediku euskaltzalea. (ikus: P. Lafitte, "Gure Herria". 1968, 123-128. orr.)

## 2. Joanes Etxeberri Sarakoa (1668-1749)

Beste garrantziarik badu halere, Ibon Sarasolak "Lapurtar klasiko hoberenetarik bat" bezala hartzen duen Joanes Etxeberri Sarako semeak. Honek ezen, 1668 an jaio-eta, berak dioenez, "Axularrek bere denboran manaiatu eta bere gomendioan iduki zuen

bataio-harrian errezibitu zuen bataio saildua", "Eskual Herri guztian estimu eta ospe handitakoa den Sarako eskua" ikasi zuen sorterrian, gero medikuntza eskolak egin ondoan Paben eta Frantzia behereko beste zenbait herritan, 1700. urte irian sorterrira itzuli zen, bere mediku ofizioari lotzeko eta hor berean Katalina Itsasgaratekoarekin ezkontzeko. Joanes eta Katalinak seme-alaba multzo ederra izanen dute, hauek Agustin Etxeberri, Mutrikon sendagile ezagun beharra delarik.

Aski laster ordea Sarako medikuak sorterrira uzten du, irabazi hobearren menturan, Berako zerbitzua hartzeko lehenik (1716), Hondarribiakoa gero (1723) eta azkenik Azkoitian kokatzeko bere sendi guziarekin (1725), hor berean zahartu ondoan hil baitzen 1749 an.

Azkoitian zegoelarik ospe handia izan omen zuen mediku bezala, baina euskalzaile bezala ere, harreman jarraikiak izan zituen, bereziki Loiolako euskaldun jesuita ezagunekin, hala nola, Larramendi (1690-1766) eta Kardaberatzekin (1703-1770).

Gazterik hasi zen alabaina idazten, Joanes Etxeberri Sarakoa: 1718 an liburuxka bat argitaratu zuen Baionan, bere kostuz. Apumaiu karriko Roquemaurel inprimitzalea baitan, "Lau-urdira Gomendiozko Karta edo Gutuna". Lapurdiko Biltzarrari bidaltzen zion gutuna ordea, dirueske bat besterik ez zen, Lapurdiko erakunde gorenari egina, latin ikasteko euskaraz berak euskaraz idatzi liburua argitaratzeko laguntza beharrez. Hizkuntzen ikastearren garrantziaz eta norberak bere herri-hizkuntzari zor dion atxikimenduaz solas ederrak zerabiltzan idazleak, baina zorigaitzez ezezkoa eman zioten herrigizonek.

Horra beraz zergatik luzaz errauspean gorderik egon ziren eskuizkributan, ez bakarrik Latina ikasteko Lapurdira debaldetan gomendatu liburua, 1712 an egina, baina beste obra eder bat ere izenik gabea, Eskuararen etorkiaz luze ta zabal ziharduena. Zarautzeko frantziskotarren liburutegian aurkitu zituen eskuizkribu horiek oro Julio Urkijok eta argitaratu gero Parisen, Geuthner baitan, 1908 an, "Obras Vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri" titulupean.

Badakigu gainera, Larramendik erranik, Etcheberri medikuak erakutsi ziola lau hizkuntzako hiztegi bat, euskara, gaztelania, frantsesa eta latina zekarzkiena. Horrelako eskuizkribua aurkitu zuelarik 1882 an, J.M. Sbarbik, askok asmatu zuen hura izan behar zela Etcheberriren hiztegi galdua, eta menturaz. Etcheberri Ziburuko euskalzaile osabarenganik(?) zuela Sarako Elcheberri eskuratua. Baina gai horretaz bere zalantzak bazituen Urkijok eta eskuizkribu hura argitaratugabe egon zen.

### 3. Gratien Jean Baptiste Ducos (1743-1828)

Donibane Lohizunen sortu zen, 1743 eko abenduaren 2 an, Gratien Jean Baptiste Ducos. Medikuntza eskolak bururatu ondoan, sorterrian ofizio

horretan lan egin zuen. XVIII. mende horretan Iparralde osoko, baina bereziki Donibaneko ekonomiak jasan beharrez itzelaren ondotik, lapurtar askok bezala ongi ikusi zuteen Ducos medikuak 1789 ko iraultza. Claret bere adiskidearekin herritarren arrangurak helarazi zizkion orduan Pariseko Biltzarrari. Bi mezulariek hartu ere zituzten Donibandarren eskerrak:

" Dugun guziek egun oihu goraz kanta

" Ongi etorri dela gure abokata,

" Ongi etorri dela luzaz bizitzeko

" Bere neke sariaz beti gozatzeko.

" Ducos jaunaren izena ezin ahantzia

" Betikotz izan bedi izkribuz utzia;

" Donibane bizi deino Claret ospeak

" Alegeratuko 'tu gure umen umeak."

... eta horrela, beste dozena bat koplak Donibaneko bertsolari izengabe batek ontu zituen. (ikus: R.I.E.V., 1924, 371-375.)

Ondorioz, 1790 ean Ducos medikua Donibaneko auzapez izendatu zuten eta herriko apezekin izan zituen arazoengatik erakutsi zuen bazekiela berak ere bertso berrien itzulikatzen eta bere koplei gatz-piperrak ematen:

" Gure marraska minak Jaunak entzun ditu,

" Eta gure burdinak ditu porroskatu

" Hementxe gare beraz, anaia maiteak;

" Egun beltzen ondoan ditugu xuriak."

" Orain arno goxoa hurrupa dezagun,

" Orain herriko lurra saltoka jo zagan!

" Zatozte gure ganat, utz dezagun herra,

" Elkarri dugun eman bakezko musua!"

" Zer irabazi dugu han hemen ibiliz,

" Zokoz zoko gordeka, bazterrak ikusiz?

" Hau da libertatea, galdu da detxima;

" Horixe da bakarrik apezaren lastima."

" Oi zer egin zarete olata zuriak,

" Arroltze fresko, gapoin, ezko, xirioak?

" Gan da denbora hura, gan behin betiko.

" Nork beraz lege huni dio barkatuko?"

" Horra non den fedea herri hautan hoztu,  
" Gure kopa bezala bihotzak agortu;  
" Emaztekiek berek elkarren artean,  
" Sudurra sartzen dute apezen gauzetan."

" Batek galdatzen dauku: " Zer da xismatika?  
" Jaunaren mahastitik urrundua nor da?"  
" Hura da bakarrikan agot bat bezala,  
" Arnorik edan gabe urez bizi dena."

" Beraz arno goxoa hurrupa dezagun!  
" Kattalin, Anamari, napar ona dugun!  
" Erromako bidetan xuxen nor dabila?  
" - Mokoia guk bezala bustitzen duena."

Aita Onaindiak, "Mila Euskal Olerki Eder"-en artean, 530. orrialdean bildu zituen lerro bipil horien gatik, ordea, Donibaneko auzapeza kargutik kendu zuten iraultzaleek 1792 an, "aristokrata zikoitzen" taldean sartu eta zerga berezia ordaintzera kondenatu.

Geroxeago, "terrorearen" edo "beldur-ikaren" egunak iragan ondoan, berriz itzuliko da, 1798 an herriko-etxera Ducos medikua. Hor gairi iragaiten delarik W. Humbolt prusiar jakintsun handia, honekin ezagutzak eginen ditu eta luzarako harremanetan sartuko.

1828 an hil zen bere sorterrian Donibaneko Gratien Ducos sendagile eta herrigizon euskalzalea. Haren bi semeen izenak aldiz agertzen zaizkigu euskalzaleen munduan, 1850 irian. Anton eta Arnaud Abbadia anaien eta César eta Jean Duvoisin anaien inguruan.

#### 4. Jean Martin Dithurbide (1803-1883)

Ducos-tarrak bezala Dithurbide-tarrak aski segurik aipatuak izan ziren Lapurdiko mugatan barna Frantziako iraultza denboran. Iraganak iragan, 1803 an Sarako Dithurbide familian seme bat sortu zitzaizen Jean Martin Laurent bataiatu zutena. Haurrak handitu-ta medikuntza eskolak egin zituen eta herrian gero ofizio hori hartu. Nahiz errepublikazale zen, inperioak Sarako auzapez egin zuen eta kargu horretan egon zen 1852tik 1867 arte. Ez zuen berak lehiaketetan parte hartu, baina bera auzapez zelarik, 1864 ean, Lore Jokoak Urruinatik Sarara etorri ziren.

1880 eko bozetan, errepublikazaleak lagundu zituen Dithurbidek eta, Abbadie eta Elissamburu kapitain ondoak zituztela aitzineko, nagusitu ziren "gorriak" "xuriei" Sarako bozetan.

Beste lan bat ere egin zuen bere zaharrian, hots, "Ixtorio Saindu Laburra" "hitzez hitz, ahal bezainbatean", berak dioen bezala, "frantsesetik

euskarara itzuli" eta Baionan Lamaignère baitan, "frantses ikasi nahi dutenen fagoretan, nola euskara ikasi nahi dutenen", bi hizkuntzetan argitaratu 1882 an.

Erran behar da, Baionako apezpikuaren eta haren bikario Inchausperen baimen eta gomendio guztiak izanagatik, lan horrek estimu guti izan zuela alderdi bereko ez ziren Duvoisin kapitainaren eta konpainiaren aldetik. Baina menturaz lan horri esker, euskara aberatsagoa zekien eta errepublikazalea ez zen Kanboko erretor Diharassarry Saratarrak asmatu zuen beste itzulpen bat egitea. Jaun honek ezen argitaratu zuen 1890ean Baionan Lasserre baitan, "Eskual Herriko haurrentzat eta jende larrientzat", "Erlisionearen Ixtorioa Laburzki", Langénieux kardinaleak egina.

Dena den ordukotzat, Jean Martin Dithurbide medikua, 1883 an hila zen, bera ezkongabe izanez Zuharragako bere etxea eta bere ontasunak oro uzten zizkiola herriari, zaharretxe bat egin zezaten Sarako behardunentzat.

#### 5. Jean Baptiste Larralde (1803-1870)

Beste mediku euskalzale batzuen izenak gogoratzen dizkigute oraintxe aipatu ditugun Anton Abbadiaren Lore Jokoek, eta lehenik Batita Larralde Donibane Lohizuneko medikua.

Jean Baptiste Larralde hau bada, Hazparne Bordaxurian sortua zen 1803 an. Eta 1815 ean herri horretan preso hartua zuten Martin Larralde Bordaxuri "galeriano" famatuaren osaba Bernat Larralde Bordaxuri bertsolari ezagunaren seme gehiena zen. Aita dirudunak eskolak eginarazi baitzizkion, Donibane Ziburun kokatu zen mediku bezala, bere arreba Janamari hartzen zuela gelarizat.

Etxen ikasi eta maitatu zukeen bertsolaritza eta bestalde nonbaitik bildu zuen euskal kantu bilduma zahar bat, XVIII. mendekoa, jabea hil ondoan Donibanen Duvoisin kapitainak eskuratu zukeena eta gero, Haristoy eta Daranatzen paperetan aurkiturik, Manu Sotak helarazi ziona Baionako Erakustokiari. Horrela beraz eskuizkribu balios hori, Durangoko udalaren laguntzarekin, Patri Urkizuk argitaratu ahal izan du, 1987 an.

1853 an bada, Abbadiaren bestak Urrunan finkatu ziren urtean, bere aita Bernat Larralde Bordaxuri bertsolaria hil zitzaion Hazparnen Larralde medikuari. Orduan. berak hartu zuen segida, eta agertu zen lehen aldikotz, 1856 ko Lore Jokoetara. "Herriko Besta" zuten gaia eta lehen saria eraman zuen Larralde semek, 14-15 koplaren artetik.

1858 an berriz agertu zen jaun medikua, baina aldi honetan ez zuen izan ez saririk ez aipamenik. Ez zen halere lotsatu eta 1859 an hiru kantu berri igorri zituen. Hauetarik batek bederen arrakasta ederra izan zuen. Hor berean ezen lehen saria irabazi zuen eta gero bazter orotan hedatu zen. Nork ez du alabaina ezagutzen seaska kantu goxoa? "Lo lo nere maitea, lo ni naiz

zurekin!..". Beste biak ordea, bat alegia itxurakoa, bestea Jose Mari Ezkerra Beratar bertsolariaren aldekoa, ez ziren aipatuak izan.

1860 eko lehiaketan Larraldeko osatu zituen berriz hiru kantu: "Xori ohatzea", "Gizon sobrea eta Edalea", "Itsasoa miriku", baina epaimahaikoek hobetsi zituzten beste hiru langile, ez nolanhikoak: Elissamburu bi anaiak eta Duvoisin kapitaina bera.

1862 an berriz, J.B. Elissambururen "Apexa eta lorea" -k izan zuen lehen saria eta aipamen soila eman zioten, geroztik hain ezaguna izan den "Ikusten duzu goizean" kantuari. Hain zuzen kantu horren maila berean. Hots aipamen batekin jarri zuen epaimahaiak Larraldeko bidalitako "Brioleta". Ez baita itsusi!

1863 an Donibaneko medikuaren "Xorinoa kaiolan"-ek lehen aipamena izan zuen, baina "Lana", haren beste kantua baztertu zuten.

Ondoko urtean aldiz, hots, 1864 ean igortzen dituen bi umorezko kantuak, "Mutil zaharra" eta "Ene sehia Gerexanino" prezatzen dituzte epaileek; bereziki lehena, lehen saria ematen diotenaz geroz; "Solferinoko itsua" hunkigarriaren maila berean.

Azken saioa 1865 ean egingen du Larraldeko eta: "Eria ezagutzaz betea"-k ohorezko saria izanen du. Handik laster, 1870 ean, hilen da Donibaneko mediku olerkaria.

Orohar, berrogeita hamar urtetara heltzearekin bere talendua agertu zuen Bordaxuritar honek 14 kantu berri ontu zituen, hamar urte barne. (ikus: Patri Urkizu, "Anton Abbadiaren koplarien guduak", 1851-1897, Euskaltzaindia - Eusko Ikaskuntza, 1997. 92-215. orr.). Horiatarik gehienek baldin badute bakoitzak bere grazia eta umore berezia -eta beste horrenbeste erran genezake aita Donostiak Ziburutar andere xahar baten ganik ikasi eta "Gure Herria" aldizkarian 1936 an argitaratu zituen beste biez, "Primo mihi", arreba Janamari "hitzontziari": eskainia eta "Gormant handia, munduan bakarra", bere zerbitzari Gerexaninori igorria- aitor dugu halere Larraldeko medikuaren hiru kantu direla zinezko arrakasta izan dutenak gure kantutegian, hots, "Lo lo nere maitea", "Brioleta" eta "Mutil zaharra".

Azken horrek gainera, izan zuen laster Ezpeletako Joseph Pierre David mediku mutil zahararen ganik bertutan errefera.

## 6. Joseph David (1829-1910)

1865 eko Lore Jokoetara etorri ziren Ezpeletatik "Putxurdina"-ren bertsoak: "Epher zago gorria" edo "Bakarrik bizitzeaz" Larralde mutil zahararen bertsoen aire berean ondutako 17 koplak. (ikus: Patri Urkizuren aipatu edizioa, 217. orr.). Ez zuten primarik eraman. Gero jakin zen Joseph David Ezpeletako mediku auzapez gaztea bera zela egilea.

Jaun hori, Fructueux David Ezpeletako mediku auzapez ohiaren eta Rosalie Halsoueten semea zen. Joseph David-en anaia gehiena, Annand David berriz

1826 an sortua eta apez Lazarista egina, Xinan gaindi zebilen misionest eta ikerlari jakintsun handi. Armand David hori, 1900 an hil beharra zen, naturalista ospe gaitza bildurik. (ikus: J.B. Daranatz. "Armand David, un grand naturaliste basque", Bayonne, 1929).

Josep David bertsolari eta musikazalea ere zen. Berak asmatu zituen elizako Angelus-aren zenbait aire, eta Maiatzeko kantika bat, aita Onaindiak bildu zuena: (ikus. "Mila Euskal Olerki Eder", 475-476). Egia erran, kantika horretan bi lerro hauek bereiz baditzaiegu:

" Makurrera mendea zein apal erori!

" Gaiztoeri sariak, penak prestueri..."

eta ondotik datozen beste bi hauek:

" Oi Jesus aterazu Frantzia lezetik.

" Sineslerik batere ez dutenen ganik.."

ohartzten gara ez gabiltzala urrun gure elizetan indarrean zebilen "nazional – katolizismotik" : Gogoratzen zaizkit : "Salba zazu eliza bai eta Frantzia!" eta Frantziako ala Espainiako elizen beste himnoak.

Dena dela bere ideia xuri eta garbien alde bizi guzian gudukaturik, bertsoz, kantuz eta ere omen hitzaldi sarkorrez, 81 urteetan hil zen 1910 ean, Joseph David Ezpeletako mediku euskaltzale "Putxurdina".

## 7. Martin Guilbeau (1839-1912)

1839 ko abuztuaren 2 an sortu zen, Urruina Peixeeneberrian, Martin Guilbeau, izenberekoko marinelaren eta Joana Doyarsabal-en semea. Baziren jada hiru haurride tipi-tipitan hilak, eta nola aita, "Le Lapin" deitu gerlako untzian zoana, ondoko abenduaren 6 an urera erori eta ito baitzen, Martin tipia lau hilabeteko umezurtz gelditu zen, bakarrik amarekin.

Gobernuaren laguntzari esker Guilbeau semeak mediku eskolak egin ahal izan zituen Bordelen eta ikasketak bururatu ondoan sendagile jarri zen Donibane Lohizunen, Batita Larralde hil zen urte berean.

Gazterik hasia zen medikugai euskalduna bertsoak ontzen eta 1858 an bidali zuen " Bihotz Karlista baten auhenak", Zumalakarregiren ohoretan idatzia Urruinako Lore Jokoetara.

1859 an, 20 urte zituen doi-doia 3. saria eraman zuelarik, "Eskaldun desterratua" igorrik. Beste hiru bertso lerro ere aurkeztu zituen aldi berean: "Urzo gazte baten hegalkada", "Lagun baten berexkuntza" eta "Marinelaren joan etorriak"; beti gai beretsuaren, hots, herriminen inguruan; baina egia erran ez hanbatekoak delako bertsoak.

1863 an, Martin Guilbeuren izena Abbadiaren bestetan agertzen da oraino, amodiozko bi kantu berriengatik: "Nere maitearena" eta "Adios nere maiteari". Biak saririk gabe egonen dira.

1872 an azkenik, Donibaneko medikuak "Enadak" aurkezten ditu Sarako bestetara, baina debaldetan, epaileek hutsik uzten baitute urte hartako sari aldia.

Badirudi orduan Martin Guilbeau, Jan-Batista Elissamburu, Julien Vinson eta hauen adiskide errepublikazaleen harremanak gaiztatzen direla Abbadiaren epaimahaiko Duvoisin, Goyhenetche eta beste lagun erregetiarrekin, bereziki mahaikide hauek 1874 ean Saran lehen saria ematen diotelarik, Don Karlos eta Andre Margaritaren alde, aita Inazio Aranek Bizkaiatik igorri duen suzko deiari. Hona nola hasten zen delako kantua:

" Ea bada mutilak, jaiki gogorturik,

" Fusilak, baionetak hartu berbertarik!

" Jaungoikoa ta Maria doguz gure aldetik,

" Europa kontra izanik ez dogu beldurrik."

Eztabaida hortarik lekora, Martin Guilbeauk argitaratu zuen frantsesezko artikulu bat "Les Agoths du Pays Basque", "Euskal Herriko Agoten historia" (Bulletin de la Societe Ramond, 1877). Gero, 1878 ean, politikan sartu zen zuzenean, Donibane Lohizuneko herriko-etxean errepublikazaleen aitzineko bezala, behin zinegotzi eta gero auzapez, izendatzen zutela.

Bestalde Donostiako Lore Jokoetan 1879 an berak parte hartu zuen eta adiskidantzak ere egin zituen Jose Manterola (1849-1884) euskalzale handiarekin. Donostiarrak 1880 ean abiatzen duelarik "Euskal Erria" aldizkaria eta "Cancionero Vasco", "Euskal Kantutegia" argitaratzen, hor ditu lankide Guilbeau eta Elissamburu, Lapurdiko bi errepublikazaleak.

Ordainez, 1881 ean, Donibanen, Guilbeau auzapezak antolatzen dituelarik, lehen aldikotz, Jondoni Joanetako euskal bestak, eta berriz ere oraino 1882 an, Manterola eta Elissamburu izanen ditu epaikide.

1883 an, ordea, auzapez errepublikazaleak lekua utzi behar dio Goyenetche erregetiarrari. Auzapez berriak Abbadiaren adiskideekin antolatuko ditu euskal besta arrakastatsuak 1892 an, 1894 an eta 1897 an. Baina orduan bere aldetik Martin Guilbeauk sortzen du euskal elkarte berri bat, "Association Basque" delakoa. Eta elkarte horrek Uztaritzeko Duhart, Hazparneko Harriague Morroxko, Ezpeletako Halsouet, Mauleko Sallaberi eta Iruneako Arturo Campionen laguntzarekin, beste Euskal Besta batzuek muntatu zituen urtez urte, 1893 tik 1897 ra, Abbadiaren Bestetarik bazter, Uztaritzen, Hazpamen, Ezpeletan, eta Saran.

Martin Guilbeauren aurkari politikoa, Goyenetche medikua, 1900ean bapatean hilen delarik, gure ustez "eskuinaldera" idekiko da "ezkerraldekoen taldea eta horrela talde horri zor izanen dizkiogu, XX. mende hastapenean, Hendaian eta Hondarribian egin ziren Euskal Biltzar aipatuak. Zehaztasunetan sartu gabe, gogora dezagun bakarrik euskal ortografia bateratzea zutela behin helburu 1901 eko eta 1902 eko bi bilkura haiek. Eta ez baldin bazen ere Resurreccion Azkue eta

Sabino Arana Goiri-ren asmu kontrajarriak bateratzerik izan, are gutiago oraino batzuek amesten zuten Akademiaren sortzerik, bilkura haietarik atera zen halere Iparraldeko euskaldungoaren historian eragin luze eta sakona izan duen "Eskualzaleen Biltzarra".

Bizkitartean, lan horiez bestalde, Martin Guilbeau medikuak Euskal Herriko mapa eder bat egin zuen 1892an eta "Hiztegiko pasarte batzuek" deitu liburuxka argitaratu 1908 an, Donibaneko Dargains baitan. Baina badirudi euskalzaleen arteko liskarrek nekaturik mundu horretatik urrundu zela azkenean gure gizona. Ixil ixila itzali zen Donibaneko bere etxean, Sopite karrikan, 1912 ko abenduaren 11 an, 73 urtetan. Marie Dihoursouribehere izana zen haren emaztea eta seme bat izan zuten. Mixel Guilbeau. Baionan aho-artatzaile ezagutu dena.

Euskal literaturaren historian ez zaio, gure ustez, Martin Guilbeau lapurtar medikuari oraino eman hartze zuen lekua.

## 8. Piarres Broussain (1859-1920)

1859 ko abuztuaren 5 ean Hazparne Barrantegian sortu zen Piarres Broussain, aitzineko uztailaren 7 an, etxe berean hila zen Pierre Barthelemy Broussainen eta honen andrearen, Marie Salagoityren semea.

Senar "amerikanoak" bost haurrekin batean bere alargunari utzia baitzion hiltzean ontasun joria Hazpamen berean eta Baiona hirian, Marie Salagoityk bere haurrekin Baionan plantatzea erabaki zuen. Han galdu zuen seme gehiena Martin, 16 urtekoa, 1866 an. Han ere zuen laster aurkitu senar berria, 49. erreximenduaren musika-burua, Jean Moreau komandantea.

Berehala burasoek igorri zuten Piarres tipia, 7 urtekoa, bere anaia zaharragoen Janbatit eta Xiprienen ondora Larresoroko barnetegira. Handik lekora, Akizeko ikastegian ezarri zituzten hiru anaiak eta gero batxilergoa iragan arte Bordeleko jesuitetan.

Parisen hasiak zituzten bi anaia gehienek legelari ikasketak, 1880 irian haurride gazteena, Piarres, joan zitzaielarik lagun, medikuntza ikasi beharrez. 20 urte ezbaian egon beharra zen Parisen Piarres Broussain.

Lehen urteetan, hots, 1880 tik 1887 ra, badirudi mediku ikasketak zuzen eraman zituela, nahiz Georges Lacombe adiskideari noizbait aitortuko dion bezala, Parisera heltzearekin bere ama hizkuntza eskoletan galarazia ziotela konturaturik, medikuntza gaiekin batean euskalgai mota guztiak landu zituen, euskara berreskuratu arte.

Bizkitartean hona non, 1890 ean, doktorgoko tesiaren prestatzen ari zelarik, hamar urtez luzatzen duen, ez jakin nola, Pariseko egonaldia. Dena den bere krisia gairaturik eta 1899 an tesia aurkezturik Hazparneko sorterrira itzuliko da Piarres Broussain eta

Durruty mediku zenaren bulegoan jarriko mende berriaren hastearrekin.

Ordukotzat harremanak izan ditu Parisetik Euskal Herri osoarekin: Baionako aldean, adiskide ditu bereziki Daranatz eta Hiriart-Urruty; artikulua ere igorri baitzuke "Eskualduna"-ri. Bizkaia aldean berriz ezagunak ditu jadanik bai Resurreccion Maria Azkue, bai eta Sabino Arana Goiri ere. Hazparneko hirierdian kokatu-ta gero, izanen du ordea zer egin, bere ofizioaz bestalde, ala Hendaiako (1901) eta Hondarribiako (1902)-ko biltzarrekin, ala frantses gobernuak debekatzen duen euskal katiximarekin (1903).

1904 ean bada, Jauregizaharreneko nagusia ezkontzen da, Maialen eta Jenofa bi alaba emanen dizkion Amélie Baratchart Amenduzeko andere gaztearekin eta ber denboran herriko kontseiluan sartzen da. Ondoko urtean berean, Xemartin Harriague auzapeza ustegabetan zendurik, Piarres Broussain hautatzen dute Hazparneko auzapez bere kontseilari lagunek. Herriko etxean egon beharra zen 1905 etik 1920 arte, 15 urte luze, ezbaian hil arte.

Sorterriko mediku eta auzapez bezala daramatzen lan guztiez bestalde ordea Piarres Broussainek aintz eginen du euskararen alde, Azkue lagunduz lehenik Hiztegia eta Kantutegia osatzen (1905-1912), Baionako "Cercle d'études euskariennes" elkarte zuzenduz gero (1910-1914), eta Euskaltzaindiaren eta Eusko Ikaskuntzaren sorreran parte hartuz azkenean (1918-1920).

Piarres Broussaini zor diogun lanik garrantzitsuenak izan da halere, gure ustez, Arturo Campionekin Donostian prestatu zuen Euskararen Batasunaren aldeko txosten famatu hura, 1920 eko apirilaren 27 an, Broussain bera ustegabetarik Orthezen hil zen egun berean, Azkuek haren partez Euskaltzaindiari irakurri ziona.

Egia da Azkuek ez zituela orduan Broussain bere lagun minaren xedeetara bildu ahal izan euskaltzainkideak, bainan belaunaldi berriak etortzearekin ikusi da, 1964 etik hona, zein zuzen zebilen Hazparneko mediku zena eta zein emankorrak izan zitezkeen haren asmuak. (ikus P. Charriton, "Pierre Broussain, sa contribution aux études basques" (1895-1920). CNRS. Paris, 1985).

## 9. Pablo Fermin Irigaray (1869-1949)

Nafarroako Auritzen sortu zen 1869 eko urtarrilaren 25 ean, Pablo Fermin Irigaray, Ramon Irigaray Auritzeko maisu eta idazkariaren eta Josefa Goizueta Doneztebearekin semea. Goi mailako ikasketak egin zituen Iruanean eta Zaragozan, eta mediku ebaketari titulua eskuratu 1892 an, Madrilan. Gero ezkondu zen gazterik adinkide zuen Felisa Irigaray auriztarrekin. Bost seme izan zituzten, haietarik euskal letretan ezagunena Aingeru mediku euskaltzaina izan baitzen.

Mediku lanak egin zituen Pablo Fermin Irigarayek Auritzen, Beran eta bereziki 1902 tik 1915 ra, 13 urtez Iruitan. 1915 ean Iruaneako Ospitalean ebaketari bezala sartu zen eta horrela Iruanean kokatu.

Iruenez geroz hasi zen ere egunkarietan idazten, alde batetik Iruanean abertzaleek argitaratzen zuten "Napartarra" aldizkarian bereziki eta bestetik jarraiki jarraikia Baionako euskaltzaleek ateratzen "Eskualduna" astekarian, "Larreko" sinadurarekin.

Gero sortu zen 1936 eko gerla, eta ixildu behar izan zuen, bere onetan, Iruaneako euskaldun kazetariak. Geroago jakin beharra genuen gerra denborako bere egunkaria idatzi zuela ixil eta gordean Larrekok. Gaur euzen Larrekoren idazkiak biltzeko eta argitaratzeko Inaki Caminok egin lan ederraren ondotik ( ikus: Inaki Camino. "Pablo Fermin Irigaray Larreko". Klasikoak. 61.. 62. zk.. Sendoa 1992.), Pablo Fermin zenaren iloba J.A. Irigaray- ek eskaini digu aitatzirekin "Gerla-urte, gezur-urte",. (Pamiela. Irunea, 1993).

Franco indarrean zegoen oraino zorigaitzez, Pablo Fermin Irigaray medikua hil zelarik Iruanean, 80 urteetan, 1949 ko irailaren 3 an.

## 10. Juan Arrozpide (1870-1952)

Bizkaiaiko Busturian jaioa zen 1870 an Jon Arrozpide, geroago Muxika herrian urte askotan sendagile egon zena. Mediku hau dugu beraz gure literaturaren historian aurkitzen dugun mendebaldeko sendagileen artean lehen euskal idazlea.

Mediku bezala eta gizon bezala asko maite izan omen zuten herritarrek, baina bestalde, euskaltzale eta abertzale izanki, Galo Ibinagabeitia, Kepa Enbeita, Gogorgoni Erretereria Jeltzaleekin hizlari eta olerkari bikain agertu zen Jon Arrozpide. Antzerki bat ere idatzi zuen: "Meza osteko jaia", batzoki batzuetan aurkeztu omen zena.

Primo de Rivera-ren diktadura erori zenean omenaldia eskaini zion Muxikako herriak, baina laster 36 eko gerla etortzearekin egun ilunak jasan behar izan zituen eta, 1952 an hil zelarik, aipamen maitekor bat egin zion halere Guatemalatik adiskide "Abandotarrak". (Euzko-Gogoa, III, 1952. 49-50. orr.).

## 11. Maurice Souberbielle (1872-1939)

1872 eko uztailaren 4 ean Kanbon sorturik, Maurice Souberbielle-k Kanbon, Larresoron eta Parisen egin zituen ikasketak, bere anaia Emmanuel, legegizon eta Paul Valéry poeta handiaren lagunak bezala. Mediku titulua ardietsi-eta 1897 an medikuntzan hasi zen Uztaritzen eta, 1899 eko uztailaren 3 an, Marie Baptiste Hairy uztariztar anderearekin ezkondu Lapurdiko hiriburuan.

1910 ean Uztariztarrek Maurice Souberbielle hautatu zuten herriko auzapez eta gero hura bera kargutan atxiki, 1939an hil arteraino.

1921 ean gerlan hil berri ziren herritarren ohoretan eginarazi zuten oroitarraren aitzinean Uztaritzeko auzapezak hitzaldi bat eman zuen euskaraz, jarraian "Gure Herria" aldizkariak argitaratu zuena. Geroago ere euskal aldizkari horren arduradun lagunekin lan egin zuen, Maurice Souberbiellek, besteak beste euskal herriko lorediaz artikuluak idazten zituela. (1930, 1931, 1932).

Jean Etchepare medikua hil zelarik ordea, 1935 ean, honek "Eskualduna" astekarian "Osagarriak" atxikitzen zuen saila aitzina eraman zuen Uztaritzeko sendagileak, bera eritu arteraino. Ez baitugu Etcheparentzat bezala Souberbiellen artikuluen biltzerik izan, honen zenbait lerro ezartzen ditugu halere, adibidetzat. Badute beren grazia: "Hazteria" da gaia.

"... Egun batez hasarre gorrian jin zaukun emazte bat, iturrian ez zela bertze solasik, baizik eta hazteria zuela eta, iturritik herri guzira hedatu zela berria, heian ez zituen behar deitu Bakezko Jujerat kalakari gezurti haiek...

" Elhe onak eman ginazkon emazte gaizoari, eta bere larruari behako on bat eman ondoan erran ginakon ezti-eztia: "Bai hazteria duzu, Kattalin, baina ez zira lehena ez azkena gaitz horrekin; lagun onak izan dituzu: Napoleon handiak, zuk bezala hazteria bazuen eta ezin sendatu zen hartarik; zu aldiz laster sendatuko zira."

" Hatza zerk emaiten du? Zorriaren ibiltzeak. Gauaz guziz da laket bere errekan ibiltzea zaragar zorriak, oheko bero hartan, eta asma zazue, milaka direlarik larru axakaren azpian alimale txar horiek ibilki, zer atsegina den eriarantzat: handik hatz, hemendik hatz; behatzez funditzen du bere larrua eta gaitza oraino gaixtarazten du. Egiten dira orduan, larrudura, zakar, pintz, atses, handitxu, urtsu, negal eta holako. Egiatzki urrikari da zaragarraduna..."

" Zaragarra edo hazteria, hogoita lau orenen buruan sendatua da, behar dena eginez. Ez da beraz zaragarra edo hazteria, egiten duten bezain gaiztoa. Hauta baginu, nahiago ginuke hazteria bat ona, ezenez izerdi-sartu bat edo sukar ustel bat arina. Deus gabe oraino hobe. (Eskualduna, 1937-III-26)

## 12. Jean Etchepare Bidegorri (1877-1935)

1877 ko urriaren 30 ean sortu zen Argentinako Marchiquita herrian, Jean Etchepare, Jean Etchepare Ibarreko Michel Garikoitz sailaren herritarren eta Graziana Bidegorry bidarraitarraren seme gehiena. Haurrak 7 urte zituelarik, 1883 an, Marchiquita utzirik, Etchepare-tarrek itsasoa gibelera iragan zuten eta Lekorne Erlandeenean kokatu ziren; hor izan baitzituzten gero burasok beste bi seme eta lau alaba.

Seme zaharrena, lehen ikasketak Lekornen egin ondoan Larresoroko ikastegira bidali zuten lehenik eta gero, 1894 ean, Bordelera, medikuntza egitekotan. Gainez gain igan zituen maila guztiak eta 1901 ean mediku titulua eskuratu zuen.

Segidako lanik ez izanez, hasi zen behin 1902 an, Lekornetik artikulua zenbait igortzen, Hiriart-Urruty bere irakasle ohiari, "Eskualduna" astekariarentzat. Beharrik 1905 ean izan zuen Aldudetik, Elosu medikuaren lekua hartzeko eskaintza. Bai eta ordutik Alduden finkatu ere.

Aldudetik ariko da beraz Jean edo Juancito Etchepare, herriko berriak, eta beste artikulua frango ere, "Eskualduna"-ri igortzen. Hortik du argitaratuko Tourseko Mame baitan, "Buruxkak" bere lehen liburua, 1910 ean. Liburu honek finkatu zuen alde batetik egilearen idazle fama, eta goiko maila, baina bestetik harrotu ere zituen bazterrak, hainbestetaraino non, barneko bi kapitulu ausartengatik, haren saltegiatarik kentzea erabaki baitzuen egileak berak.

1914 eko gerla etorri zelarik, Aldudeko medikuak gerla tokietan iragan zituen lau urte luze, soldado zaurituen artatzen ariz, kapitain bezala. Ez zen horrengatik "Eskualduna" maiteari bere berriak igortzetik gelditu.

Gerla ondoan, Aldudera itzuli orduko, Jean Etchepare herriko etxean sartu zen auzapez-lagun gisa. Gero Fernande Camino Kanboko medikuaren arrebarekin ezkondu zen. Bestalde Eskualzaleen Biltzarreko lagunak burulehen izendatu zuten Maulen 1922 an, eta buruzagi berria lan handia egin zuela euskararen sartzeko ikastegietan erran behar da.

1929 an zorigaitzez, bihotzeko min gaizto batek jo zuen gure medikua, eta ondorioz, emazteak eta koinatak bildu zuten Aldudetik Kanbora etortzera. Han bizi izan zen oraino, ikustera zoan eri baten oinetan bapatean hila erori zen arte, 1935 eko urtarrilaren 9 an.

Ez zen bada alfer egona azken urte horietan ere euskal idazle handia. ezen "Eskualduna"-ri edo "Gure Herria"-ri igorri ohi zituen artikuluez bestalde, liburu berri bat, "Beribilez", argitaratu zuen, Euskal Herrian barna "beribilez" egin itzuli bat kondatuz (1932).

Orohar beraz, "Buruxkak" eta "Beribilez" bi liburu aberatsez gain, Jean Etchepare medikuaren idazlanekin guhaurek argitaratu ditugun 5 liburukiak ikertzen dituztenek, badute non alha: Jon Casenave lapurtar erakasle gaztea horri ohartu bide zaio, "Buruxkak" hurbiletik eta barnatik aztertuz osatu duenaz geroz laster aurkeztera doan doktorgoko tesia (J. Casenave. " De l'article de presse à l'essai littéraire, "Buruchkak" , 1910, de Jean Etchepare". Thèse de Doctorat d'Etudes Basques, Bordeaux III. 1997)

## 13. Martin Minvielle (1886-1948)

Amikuztarra zen, Martin Minvielle, euskal idazle guti bezala, Nafarroa Behereko Labetze Xulian sortua, 1886 an. Parisen eskolatu zen, han ezkondu eta mediku handien lerroan sartu. Ez zuen ordea ez ama hizkuntza ez ama lurra behinere ahortu eta, oraino zahartu gabe, sortetxera itzuli zelarik, azken urteak sorteriari eman

zizkion osoki, herritarren osasunaz arduratuz eta herriko gazteen formazioaz.

Xede horiek gogoan, berak herriko mutil gazteei gau eskolak emaiten zizkien, neskatxentzat aldiz ikastegi berri bat, "D'Arthez etxea" Donapaulen altxatu zuen, bera ere, herriz herri, ibili zen hitzaldiak emanez, herritarren zaintzeko hordikeriatik eta ama gazteei umeen artatzen erakusteko. Horrela argitaratu zuen liburuxka bat euskaraz, "Haur tipien altxatzeaz".

Eta gainera, Jean Etchepare, Maurice Souberbielle eta aitzineko medikuen biderei jarraikiz, euskarazko artikuluak "Osagarriaz" argitaratu zituen ere, "Herria" astekarian Martin Minviellek, bere sorterrian hil zen arte, 1948 an.

#### 14. Jose Zinkunegi (1886-1964)

Gipuzkoako Errezil-en sortu 1886 ean eta, 1964 ean hil zen Zarautzen Jose Zinkunegi euskal idazle medikua. Askok zor dio euskal literaturak.

Adibidez, itzuli zituen gaztelaniatik, Balmes-en "El Criterio", "Irizpidea", (ikus, "Euskal Esnalea", 1918-1924). Arturo Campion-en "Erraondoko azken atabalaria", "Popatxu" eta "Yan-Pier" (ikus, "Euskal Esnalea", 1926, 1927), eta frantsesetik, Henri Pourrat-en "Kepa Deunaren oilaskoa" eta Jean Mauduit-en "Kozko muinoa" (Ikus, "Euzko Gogoa", 1956, VII, 54-56; 1958, IX, 173-180).

"Euskal Esnalea", "Euzko Deya", "Euzko Gogoa" eta beste aldizkarietan eusko abendaren etorkizunaz, sendotasunaz edo osasunaz idatzi zituen artikulu laburrez bestalde, Jose Zinkunegik argitaratu zituen bi liburuxka: "Eusko abenda, bere sendotasuna, len orain eta gero", 1920 ean, eta "Lana, atsedena eta jolasak", Zarautzen, 1928 an. Azkenekotz berak idatzi zuen 1957 an, "Zigor" operaren librettoa.

#### 15. Azken solas

Aipatu ditugun 14 izenei beste horrenbeste bederen erants ahal geniezake. Hala nola Iparraldean, Albert Goyeneche (+1900) Donibane Lohizuneko auzapez izan zen mediku euskalzalearen izena. Euskal Besta handiak antolatu zituen Donibanen 1892, 1894, 1897 an; euskal kantu ederrenak bildu "Eskualdun Kantaria" izeneko liburuxka batean, (1892 & 1894), eta hitzaldi bat edo beste argitaratu. (ikus, Senperen eman zuena "Errepublikaren izurritea" salatzeke, 1887 an).

Albert Constantin (1873-1957) Jean Baptiste Constantin "Joanes Garaztarra" ziberotar idazle oparoaren semea. Atarratzeko mediku eta auzapez izan zen. Euskal kultura ere ahalaz lagundu zuen, baina hitzaldi batez besterik ez digu utzi euskaraz idatzirik (ikus bada "Eskiulako herria nuntik eta nula egin den?", Gure Herria, 1954. 353-357).

Jean de Jaureguiberry (1880-1952), ziberotar medikua hau ere, zorrigaitzez gutiegi idatzi zuena bere euskara xorrotxean. (ikus, "Gure Herria". 1952).

Christophe Dufau, (1888-1922), Senpereko medikua. "Gure Herria"ren sortzailetarik izan zen, Jean Barbier "Nehor" Senpereko erretorarekin euskal kantuen musika argitaratzen hasi orduko, gerlan bildu gaitz gaizto batek 34 urtetan eraman zuen. (ikus, "Gure Herria". 1922, 673-679. orr.).

Hegoaldean berriz ikergai uzten dugu, Manuel Celaya, 1879 an Azpeitian jaioa, eta Donostian mediku izana, euskarara itzuli zituena, besteak beste, "Apokalipsia" eta "Urtubiako andrea".

Martin Aranburu eta Bago Agirre, Itziar eta Debako mediku aski ezezagunak daude guretzat, nahiz, 1899 an, " Erriko Jendeentzat Osasun legeak eta Medikantzako argibideak" argitaratu zuten (ikus Isabel Arrigainen edizioa, Klasikoak, E.E.E., Donostia 1994, 69. zk.).

Aingeru Irigaray, (1899-1984), "Apat-Etchebarne" medikua, Pablo Ferminen semea, eta euskaltzain izana aski ezaguna da.

Ezaguna ere Aingeruren semea, Jose Angel Irigaray, 1942 ean jaioa, mediku olerkari eta idazle oparoa, etxekoan ildoatzen aitzina daramana, zorionez.

Baina horrela. XX. mendean sartu gara eta hor bagenuke besterik aipatzeko, adibidez, Mendozatik idazten zigun Justo Garate (1900-1995) irakasle jakintsu Bergararra.

Edo hurbilago, euskalzale askoren aitona dugun Donostiako Inazio Barriola (1906).

Aitzina bada, gure belaunaldikoei so bat emanez, berehala gogora heldu zaizkit Uztaritzeko Mixel Labéguerie (1921-1980) zenaren euskal karra eta lana eta Iruñeko Pedro Diez de Ulzurrun (1924-1994) zenaren adorea eta atxikimendua.

Gazteak aipatu nahi badituz oraino hona bere kantu eta olerki sailean erne diharduen Mikel Laboa (1935), bai eta jadanik historian, politikan, hiztegi gintzan ala etnologian lan ederrik egin duten Emilio Lopez Adan, Xabier Agirre, Patxi Letamendi edo Anton Erkoreka mediku euskalzaleak.

Baina honetan ixilduko gara, baitugu aski erranik erakusteko ez dela eten euskal idazleen haria Euskal Herriko sendagileen artean.

#### 16. Amaiera moduan

Hitzaldi han. 1981 eko urlarrilaren 17 an Leioako Medikuntza eta Zientzia Historiaren Mintegian emanik. berrikusi dut Baionan, 1997 ko azaroaren 25 ean, J. L. Goti jaun sendagileak eskaturik. Piarres Charritton